

Eskola Prestekintza

Giza garapenak gatazkak berezkoak ditu eta, gainera, hezkuntza-baliabide hobezinak dira. Horregatik, elkarrekin bizitzeko abileziak hobetzeko gakoak aurkitu eta garatu behar ditugu.

Hala, Gizagune Fundazioan hezkuntza-erkidegoan elkarbizitza sustatzeko esku-hartze berritzaileak antolatzen ditugu, ekosistema-ikuspegia oinarri hartuta.

Ekosistema moduan lan egitea proposatzen du, hau da, hezkuntza-agente guztiek parte hartzeko lan-programa bat antolatzea, betiere ikastetxe bakoitzaren erritmoak eta inplikazioak errespetatuz.

ZEINTZUK DIRA HELBURUAK?

Hezkuntza-erkidegoko kideen elkarbizitza eta harremana hobetzeko jarduerak planteatzea ezinbestekoa da, honetarako:

- ▷ Hezkuntza-bikaintasuna lortzeko, harreman osasungarriak sustatuz.
- ▷ Hezkuntza-gatazkak negoziatuz konpontzeko.
- ▷ Ikasgelan indarkeria gutxitzeko.
- ▷ Kideek komunikatzeko abileziak garatzeko.
- ▷ Eskolako giroa hobetzeko.
- ▷ Klaustroko gatazketan esku hartzeko.

Elkarrekin ongi bizitzeko hezteka da gure helburua eta, horretarako, ezinbestekoa da hainbat gaitasun lantzea, denok gai izan gaitezen gatazkak konpontzeko, gure bizitza arduraz antolatzeko, gure buruarekin eta gainerakoekin harreman egokiak izateko, erabakiak hartzeko, zentzu kritikoarekin jokatzeko eta ingurunea ahalmen sortzailez aldatzeko ekintzak gauzatzeko.

GIZAGUNE LAN-TALDEA

Gizagune Fundazioak gizarte-zientzien arloko profesional talde bat du, gatazkan kudeatzen eta bizikidetzara sustatzen adituek osatua. Hauek jarduketa arlo jakin batzuetan dira espezialista: Adimen Emozionala, Eskola Jazarpena, Terapia Sistemikoa, Kultur arteko Hezkuntza, Lan-taldeen Gainbegiraketa eta Giza Eskubideak.



www.fundaciongizagune.net
admin@gizagune.net
Plaza Saralegi, 6. Bilbao 48003
94 473 34 12

Bonos Elkarrekin



PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA



ESKOLA-JAZARPENERAKO PROGRAMA



IKASLEENGAN TREBETASUNAK GARATZEKO PROGRAMA



ELKARBIZITZAREN GAINEKO AHOLKULARITZA



KLAUSTROETAN LAGUNTZEA



PAREKOEN ARTEKO BITARTEKARITZA



ELKARBIZITZA BATZORDEAK



IKASLEEN GURASO ELKARTEA ESKURA JARTZEA



UNITATE DIDAKTIKOAK



PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

IKASLEEK abileziak ikastea oinarrizko pilarea da bizikidetzaren sustatzeko, eta horretarako beharrezkoa da bizitzarako trebetasunak lantzea, balioak barneratzea, eta harreman eta komunikazio-trebetasunak ikastea.

Irakasleak, ezagupen akademikoen eta bizitzarako abilezien eragile sustatzaile gisa; **familia**, gizarteratzeko lehenengo eragile gisa, eta ikastetxeko **irakasle ez diren langileak**, espazio ez-formaletan bere lana betetzen dutenak.

Horregatik da beharrezkoa prestakuntza ekintzak planteatzea gatazken kudeaketa, estresaren kudeaketa positiboa, elkarriketa eragileak, amorraren maneia, komunikazio estrategia eta trebetasunak, autoritatea, adimen emozionala eta bullyinga, sormena, enpatia, entzutea eta garapen moralaren arloetan. **Tailer teoriko-praktikoen** bidezko prestakuntza esanguratsua.



PAREKOEN ARTEKO BITARTEKARITZA

Bitartekari baten laguntzaz bi pertsonen edo gehiagoren arteko **gatazka kudeatzeko** modua da. Horrek ikasle multzoan gizarte gaitasuna eta komunikazio trebetasuna eta enpatia hobetzen du.

Parekoen arteko **bitartekaritza-programek** bakearen kultura sustatzen dute eta ikastetxeetan gatazka modu positiboan kudeatzen laguntzeko balio dute. Horretarako, ezinbestekoa da ikasleei haien parekoen taldearen premiak eta interesak kudeatzen erakustea. Eta ikasleen arteko bizikidetzaren zailtasunak kudeatzeko gai izatea. Ekintza honek programa sortu, ezarri eta gainikuste lanean laguntzeko helburua du.



KLAUSTROETAN LAGUNTZEAK

Klaustroei laguntza eskaintzen diegu, edozein arrazoirengatik komunikatzea eta akordioak adostea kostatzen bazaie, **komunikazio-prozesuak errazteko**.

Irakasleak gainbegiratze prozesuetan parte hartzea onuragarria da, elkarriketaren bitartez helburuak bete eta baliabideak bideratzeko momentua izanik.



UNITATE DIDAKTIKOAK

Tutoretzetan erabiltzeko tresna bat da. **120 dinamika** baino gehiago daude, **bost gai** hauetan multzokatuta:

- ▷ Bizitzeko abileziak.
- ▷ Balio-heziketa.
- ▷ Gatazka konpontzea.
- ▷ Giza eskubideen inguruko heziketa.
- ▷ Kulturartekotasuna.

Derrigorrezko hezkuntzaren ziklo guztia hartzen dute (6-16 urte) eta maila guztietarako daude egokituak. Gainera, euskaraz zein gaztelaniaz prestatu ditugu.

[Web-orriko unitate didaktikoetarako esteka](#)



IKASLEEN GURASO ELKARTEA ESKURA JARTZEAK

Ikasleen familiak hezkuntza-erkidegoaren parte dira: ikastetxearen funtzionamenduan eragina duten erabakiak hartzen parte hartzen dute eta **seme-alaben ikaskuntzaz arduratzen dira**. Horretarako, IGE, Ikasleen Guraso Elkarteak, baliabidea jartzen dugu gurasoen esku.



ELKARBIZITZAREN GAINEKO AHOLKULARITZA

Gizagune Fundazioan ikastetxeei haien errealitatearen araberako esku-hartze bereziak diseinatzeko laguntzen diegu. Hala, elkarbizitzaren inguruko aholkularitza eskaintzen dugu, hain zuzen ere, **elkarbizitza sustatzeko** esku-hartze integral bat, ikastetxe bakoitzaren premia berezietan esku hartzeko plan bat diseinatzeko.

Bizikidetza Planen bidez lan eginez, bai birformulatuz (arauak, neurriak, protokoloak, espazioen antolaketa, ardurak, besteak beste), edo Bizikidetza Planak sortuz, ikastetxearen errealitatera egokitutako parte-hartze prozesuen bitartez.



IKASLEENGAN TREBETASUNAK GARATZEKO PROGRAMA

Tailer hauen bitartez, ikasleek, aurrez ezarritako **arauak onartzeaz** gain, ekimena eta **taldean lan egiteko** ohitura garatzen dituzte. Gainera, elkarlanerako jarrera lantzen dute eta kideen aukerak eta mugak errespetatzen ikasten dute. Jarrera horiek bizikidetza errazten dute eta gatazkak modu baketsuan konpontzen laguntzen dute.

Horregatik, **Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko** ikasleekin egiteko saioak proposatzen ditugu, betiere ikastetxeen errealitatea aintzat hartuta. Saioen oinarriak dira komunikazioko eta talde-kohesioko dinamikak, laguntza- eta konfiantza-jolasak, lankidetzak-jolasak eta sormen-jolasak (ahozkoak, dramatikoak eta grafiko-figuratiiboak).

Jolasaren bitartez **kulturartekotasuna landu** nahi duten ikastetxeentzako ere badauzkagu saioak; saio horietan munduko jolas tradizionalak erabiltzen ditugu.



ELKARBIZITZA BATZORDEAK

Ikastetxeetako gatazkak aldatzeko ezinbestekoa da **sentsibilizazio- eta pres-takuntza-jarduerak** antolatzea eta eguneroko lanean esku hartzea. Jarduera horiek sistematizatzen ez badira, ordea, indarra gal dezakete edo nork bere irizpide edo bihozka den arabera gauzatu ditzake.

Ikasleak dira interesdunak, eta ingurua ezagutzen dute; horregatik, ezinbestekoa da haiek ere parte hartzea. Hala, Elkarbizitza Batzordeek ikasleek bizikidetzaren sustapenean esku hartzeko moduak antolatzen parte har dezaten laguntzen dute. Esku hartzeko modu horiek, betiere, sortzaileak, egiazta-tuak eta arduratsuak dira.



ESKOLA-JAZARPENERAKO PROGRAMA

Justizia konpotzailea oinarri hartuta eta egindako kaltea konpontzeko asmoarekin, biktimak aintzatestea eta harremanak konpontzea. Horretarako baliatu daitezke:

- ▷ Bitartekaritza konpotzailea.
- ▷ Zirkulu zuzentzaileak, ikasgelan.

Mekanismo horiek elkar ezagutzea errazten dute eta partaideen artean **loturak sortzen** dituzte. Era horretan, partaideek erantzukizunez jokatzeko ikasten dute eta eremu seguru eta konfiantzazkoak sortzen dira.

Eskola Prestekintza

HEZKUNTZA ZENTRUA: _____

HARREMANETARAKO PERTSONA: _____ KARGUA: _____

TELEFONOA: _____ EMAIL: _____

HERLBURUKO PERTSONAK:

Ikasleak	Lehen Hezkuntza Haur HEzkuntza	Bigarren Hezkuntza Batxillergoa
Pertsonal Teknikoa	Irakasleak Zuzendaritza Taldea	Tutoreak Irakasleak ez diren langileak
Familia	Gurasoen Elkartea	Familia

PROGRAMAK:



PRESTAKUNTZA ETA
SENTSIBILIZAZIOA



PAREKOEN ARTEKO
BITARTEKARITZA



ELKARBIZITZA
BATZORDEAK



IKASLEENGAN
TREBETASUNA
GARATZEKO
PROGRAMA



UNITATE
DIDAKTIKOAK



IKASLEEN GURASO
ELKARTEA ESKURA
JARTZEA



ELKARBIZITZAREN
GAINEKO
AHOLKULARITZA



KLAUSTROETAN
LAGUNTZEA



KALTEAK
KONPONTZEA

OHARRAK:

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa betetzeko, jakinarazi nahi dizugu zure datu pertsonalak, zeuk emandakoak, fitxategi batean gordeko direla bai gure arteko harreman komertziala kudeatzeko, bai eta GIZAGUNE FUNDAZIOAK -helbidea SARALEGI PLAZA 6a, 48003, BILBAO, BIZKAIA duenak- zure intereseko izan daitekeen informazioa postaz, faxez edo posta elektronikoz gure enpresak eskaintzen dituen zerbitzu edo produktuen berri emateko. Jakin ezazu eskubidea duzula datu fitxategi horretan sartu, zuzendu, deuseztatu edo aurka egiteko eta, horretarako, aurrean aipatutako helbidera idatzizko eskabidea eta identifikatzeko dokumentua bidali beharko duzu.



www.fundaciongizagune.net
admin@gizagune.net
Plaza Saralegi, 6. Bilbao 48003
94 473 34 12